

JASANGARRITASUNAREN ESKOLA

# INGURUMEN HEZIKETARAKO MUSEOA

UDAZKENA 2019





T. 948 149 804 / 948 42 09 84

[www.educacionambiental.pamplona.es](http://www.educacionambiental.pamplona.es)

[museoambiental@pamplona.es](mailto:museoambiental@pamplona.es)



[museo.educacionambiental](https://www.facebook.com/museo.educacionambiental)



[museoEAPamplona](https://twitter.com/museoEAPamplona)

**Goizez**, asteartetik ostiralera 10:00-13:00

**Arratsaldez**, asteartetik ostegunera 18:00-20:00

**Errotazarko kalea z.g, 31014 Iruñea**



## UDAZKENA: HIRIA EKOSISTEMA GISARA

Udazken honetan hiriri begiratuko diogu; betaurrekoak jantzi eta Iruñeari so egingen diogu bertako txoko, kale, parke eta harri guztietatik.

Hiriaren funtzionamendua ezagutuko dugu, eta jakinen dugu zeri erreparatu behar diogun aurrera egiteko biztanle eta inguruarekin lotura estuagoa eduki eta bidean aztarna txikiagoa utziko duen hirirantz.

## Indizea

Hitzaldi-solasaldiak **07-10**

Lantegiak, ikastaroak eta txangoak **11-19**

Erakusketak **20-21**

Merkatu txikiak **22-23**

Museoa zeureganatu **24**

# Urria

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8 Gutun-EKO sistemak erakusketaren aurkezpena Er	9 Landareak hartitzeko lantegia Er	10 Bizitxoko Er	11 Er	12	13
14	15 Familiendako txangoa GAZTELANIAZ Er	16 Geologia- txangoa Er *	17 Familiendako txangoa EUSKARAZ Er	18 Er	19	20
21	22 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua Er	23 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua Er	24 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua Er	25 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua Er	26	27
28	29 Ciudad y Mujer: retos pendientes Er	30 Pasealdia eta hirigintza Er *	31 Jostailuak trukatzeko merkatua Er			

**H** Hitzaldi-solasaldiak **T** Lantegiak, ikastaroak eta txangoak

**M** **Merkatua:** Dirurik gabeko merkatua **Er** **Erakusketa:** Gutun-EKO sistemak

**\*** Jarduera hau ez da Museoa egiten. Barruan informatu.

**M** **Merkatua:** Jostailuak trukatzeko gunea **04**

# Azaroa

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5 Argazkilaritza- lantegia Er	6 Agroecología: una oportunidad para frenar el cambio climático Er	7 Argazkilaritza- lantegia Er	8 Er	9	10
11	12 Elikadura- lantegia Er *	13 Las ciudades se adaptan al cambio climático Er	14 Bizitxoko Er	15 Er	16	17
18	19 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua Er	20 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua Er	21 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua Er	22 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua Er	23	24
25	26 Habiak eta txoriak erakusketaren aurkezpena Er	27 Evolución aves en Navarra Er	28 Jostailuak trukatzeko merkatua Er	29 Er	30	

**H** Hitzaldi-solasaldiak **T** Lantegiak, ikastaroak eta txangoak

**M** **Merkatua:** Dirurik gabeko merkatua **Er** **Erakusketa:** Gutun-EKO sistemak

**\*** Jarduera hau ez da Museoa egiten. Barruan informatu.

**Er** **Erakusketa:** Habiak eta txoriak **05** **M** **Merkatua:** Jostailuak trukatzeko gunea

# Abendua

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10 Jaiotzen lantegia	11 Dastaketa: Nafarroako babarrunen toki-barietateak	12 Bizibxoko	13	14	15
16	17 Jaiotzen lantegia	18 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	19 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	20 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	21	22
23 30	24 31	25	26 Jostailuak trukatzeko merkatua	27	28	29

**H** Hitzaldi-solasaldiak **T** Lantegiak, ikastaroak eta txangoak

**M** **Merkatua:** Dirurik gabeko merkatua **Er** **Erakusketa:** Habiak eta txoriak

★ Jarduera hau ez da Museoaan egiten. Barruan informatu.

**M** **Merkatua:** Jostailuak trukatzeko gunea

# HITZALDI-SOLASALDIAK

Hitzaldi-solasaldi guztiek sarrera librea dute, ez da izena eman behar.

## CIUDAD Y MUJER: RETOS PENDIENTES

Maite Arrondo

Urriak 29, asteartea. 19:00.

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Hitzaldi honetan azalduko da zertan datzan genero ikuspegia duen hirigintza, eta emakumeek etxebizitza-eskubidea dela-eta bizi duten egoerari helduko zaio. Izan ere, beste eskubide batzuen kasuan bezala, etxebizitza-eskubideak zenbait erronka azaleratu ditu gure gizartea osatzen duten askotariko kolektiboendako. Bizitoki-bazterkeria edo pobrezia energetikoa, horra gehienbat emakumei eragiten dien bi fenomeno, eta horiei aurre egiteko neurriak, hortaz, hori aintzat hartu behar dute eraginkorrak izanen badira.

**Maite Arrondo**, aholkularia da etxebizitza-politketarako berrikuntza-sare eta -proiektuetan. NBEko errelatorearekin aritu da lanean Etxebizitza Egokia edukitzeko Eskubidearen ganean, baita beste erakunde hauekin ere: Nazio Batuetako UN-Habitat agentzia, Etxegabekoekin lanean aritzen diren Erakundeen Europako Federazioa, Gizarte-Etxebizitzen Kudeatzaileen Espainiako Elkarte eta Bartzelonako Udaleko Etxebizitza eta Birgaitze Institutua. Europar Batasunean ere gai horri buruzko zenbait proiektu eta programetan parte hartu du.



## AGROECOLOGÍA: UNA OPORTUNIDAD PARA FRENAR EL CAMBIO CLIMÁTICO

Isabel Díez Leiva

Azaroak 6, asteazkena. 19:00.

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Egungo agro-elikadurako sistemak biziki areagotzen du klima-aldaketa. Teknika agroekologikoetan oinarritutako nekazaritza, baina, zero kilometroko eta sasoiko elikagaiak erabiltzea eta abar lagungarri dira planeta hozten laguntzeko.

Elikadura eta nekazaritzaren gaineko azterketa eginen dugu, eta agroekologiaren ikuspegitik proposatzen diren aukerak jorratuko.

**Isabel Díez Leiva** Ecologistas en Acción erakundeako Agroekologia Alorrekoa da.



## LAS CIUDADES SE ADAPTAN AL CAMBIO CLIMÁTICO

Rafa Alday

Azaroak 13, asteazkena. 19:00.

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Hainbat kontu izanen dira aztergai: klima-aldaketaren eragina hiri-inguruetan, tenperaturen gorakadaren ondoriozko inpaktuak, muturreko ondorio meteorologikoak, bero-boladak, eta abar. Halaber, horiek biztanleei nola eragiten dieten aztertuko da, baliabide ekonomikoen edo generoaren arabera. Fenomeno horretara moldatzeko hirietan egiten ari diren ekimenak ezagutuko ditugu, zehazki gure hirian, Iruñean, egiten ari direnak.

**Rafa Alday** klima-aldaketarako teknikaria da Nafarroako Gobernuako Lursarea Jasangarritasunaren Nafar Agentzian.



## EVOLUCIÓN DE LAS POBLACIONES DE AVES EN NAVARRA. PROYECTO SACRE, 20 AÑOS DE SEGUIMIENTO

Juan Ignacio Dean (Gorosti, Natur Zientzien Elkarte)

**Azaroak 27, asteazkena. 19:00.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

**Gorosti Natur Zientzien Elkarteak** SEO/Birdlife erakundearekin elkarlanean egiten du Nafarroako hegaztien bilakaeraren jarraipen sistematikoa. Proiektuaren jomuga da jarraipena egitea Espainiako Hegazti Arrunt Ugaltzaileei -hegazti ohikoenak-, horrek bide ematen baitu estrapolazioa egiteko zer habitati lotuta dauden eta horien egoeretara. Hortaz, adierazle ona izan daiteke gainerako bizidunendako.

Proiektu honetan, non Europako herrialde gehienek ematen baitute laguntza, ingurumen-esparruan goi-mailako prestakuntza duten boluntarioen ekarpena da oinarria, eta haiendako prestakuntza-ikastaro bat ere egiten da urtero. Azken azterketako emaitzen arabera, habitat guztietan egin dute behera populazioek: neurriak harrarazteko gonbita, hortaz.



Lantegi eta irteera guztiak doan dira. 16 urtetik gorakoendako dira, eta aurrez eman behar da izena.

## LANDAREAK HARTZITZEKO LANTEGIA

Nerea Zorokiain (Nishime)

**Urriak 9, asteazkena. 17:30 - 20:00.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Hartzidura elikagaiak kontserbatzeko metodo tradizionala da, antzinetatik erabilia. Gaur egun, gainera, sukaldaritzatzena gisa erabiltzen da, hartzidura moduko zapore, testura eta koloreei ematen dizkien ñabardurengatik.

Hartzitutako elikagaiak giltzarri dira digestio-aparatu zaindu eta berreskuratzeko, probiotiko naturalak baitituzte. Hori horrela, hartzidura ezberdinak prestatzen ikasiko dugu, urrats ezberdinak: gatzunetan, elikagaiaren zuzun...

**Nerea Zorokiain**, Nishime Makrobiotika Institutuaren sortzailea, irakaslea eta aholkularia da.

### Aldez aurretik izena eman behar da

Irailaren 30etik aitzina  
010 telefonoan edo 948 42 01 00an  
(Iruñeaz kanpotik deituz gero).



## FAMILIENDAKO LANTEGIA: IBILALDI SENTSORIALA: GURE INGURUNEA DASTATZEN

Oihana López Cestao

Urriak 15, asteartea. 17:30 – 19:00.

GAZTELANIAZ

Urriak 17, osteguna. 17:30 – 19:00.

EUSKARAZ

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa  
(irteera eta helmuga)

Txango honetan Argaren ingurua ezagutzeko aukera izanen dugu, zentzumenen bitartez pasealdiaz gozatuz. Familiartean egiteko jarduera izanen da, non jolasaren bidez ingurua, landareak eta zenbait animalia ikusi, entzun, ukitu, usaindu eta dastatuko baititugu.

**Oihana López** Hezkuntza Berezian eta Psikopedagogian lizentziaduna da, eta prestakuntza du gorputz-arteterapian. Adin guztietarako sormen-lantegiak ematen ditu eta osasun kolektiboa sustatzen du gorputz-adierazpenaren eta artearen bidez.

**Aldez aurretik izena eman behar da.**

Irailaren 30etik aitzina 010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).

**Nori Zuzendua:** 4 eta 10 urte bitartekoei, helduek lagunduta.



## GEOLOGIA-TXANGOA: NIRE HIRIKO HARRIAK: BEREZKO MUSEOA

Fran Sanz Morales

Urriak 16, asteazkena. 18:00 – 20:00.


**TOKIA** **Irteera:** Askatasun plaza  
**Helmuga:** Gazteluko plaza

Gelditu al zara inoiz erakusleho baten edo eraikin bateko fatxadaren aurrean eta zera pentsatu: “aizu, zeinen harri polita erabili dute toki hau eraikitzeko!” Edo agian sukalde-gainekoa aukeratzea egokitu zaizu inoiz. Txango honetan gure hiriko erdialdeko toki batzuetan egingen dugu geldialdia, eta modu erraz eta dibertigarrian begiratu eta miretsiko ditugu harri horietako batzuk; haien ohiz kanpoko jatorrien berri ere izanen dugu.

**Fran Sanz Morales** geologo nafarra da. Hainbat urte darama alderdi profesionala –geoteknia eta geologia-ingeniaritza ardatz duena– eta geologia-irakaskuntza eta -hedapena uztartzen. Gaur egun irakaslea da Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

**Aldez aurretik izena eman behar da.**

Irailaren 30etik aitzina  
010 telefonoan edo 948 42 01 00an  
(Iruñeaz kanpotik deituz gero).



## PASEALDIA MILAGROSAN BARNA: NOLA ERABILTZEN DUTE AUZOA BERTOKOEK?

Urbanas Kolektiboa

Urriak 30, asteazkena. 18:00 – 20:00.

**TOKIA** Alfredo Floristán plaza (Milagrosa)

<https://bit.ly/2ZfhL52>

Ibil zaitetz auzoan barna, bertokoen begiradaz eta esperientziaz, Colectivo Urbanas elkarteak bultzatutako proiektuaren bidez, Jane Jacobs izen handiko hirigile kanadiarrak eginiko ibilaldiak oinarri.

Elkarbizitzarako guneak sortzeko beharra esperimendatuko dugu, bai eta gure auzoak pertsona guztien erabilera eta premietatik abiatuta ulertzeko garrantzia ere. Horretarako, auzotar eta kolektibo ugariarekin egindako bilera partizipatiboen bidez diseinatu da ibilaldia, betiere genero-berdintasuneko eta irisgarritasuneko irizpideak bertatuta. Jane Jacobsek 1961ean argitaratutako “Muerte y Vida de las grandes ciudades” lanean iragarri zuenez, hiriek topalekuak behar dituzte, haiek gobernatuko dituzten begiak, oinez ibiltzeko aukerak...

**Colectivo Urbanas** elkarteak Jane's Walk-en Nazioarteko Sarearen parte da, eta hura arduratu da ibilaldi hau posible egiteaz.

### Aldez aurretik izena eman behar da

Urriaren 7tik aitzina

010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).

**Nori Zuzendua:** jendeari, oro har.



## ARGAZKILARITZA-LANTEGIA: URA ETA NATURA

Gonzalo Déan

Azaroak 5, asteartea. 18:00 – 20:00.

TEORIKOA

Azaroak 7, osteguna. 16:30 – 18:30.

PRAKTIKOA

**IRAUPENA** 4 ordu

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Natura-argazkilaritzako hastapen-lantegia da. Lehen eguneko saioa teorikoa izanen da, eta hala argazkilaritzako oinarritzko teknikak nola reflex-kamera baten parametroak azalduko dira. Bigarren egunean ikasitakoa praktikan jarriko da Arantzadiko meandroaren inguruan eginen den irteeran.

**Gonzalo Déan** biologoa, ornitologoa eta natura-argazkilaria da. Ingurumen-ikerlanetako teknikari profesionala da.

### Aldez aurretik izena eman behar da

Urriaren 7tik aitzina 010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero). Kamera ekarri behar da, reflex motakoa, ahal izanez gero.





## ELIKADURA-LANTEGIA, IZEN ETA ABIZENEZ

Alberto Rodriguez, Geltokiko sukaldaria

**Azaroak 12, asteartea. 18:00 – 20:00.**

**TOKIA** Geltoki (autobus-geltoki zaharra).

Elikadura aldaketa-eragile garrantzitsua da hiri jasangarriagoak lortzeko bidean aurrera egiteko. Lantegi honetan, Geltokin orain sukaldaria den Alberto Rodríguezek emango duen horretan, tokiko produktu freskoez prestatuko errezeta bat egingen dugu, eta horrela gure hiritik gertu dauden ekoizpen-guneak ezagutaraziko. Asmoa da sukaldaritza ikuspegi zabalago batetik ulertzea, ekoizleen lana ere aintzat hartuz eta produktuari balioa erantsiz.

Errezeta prestatzen ari garela, sukaldariak halako gauzak azalduko dizkigu: produktuen jatorria, ekoizleen identitateak eta beren ustiategiaren ezaugarriak zein haiek lantzeko moduak. Horrela, ezin hobeki ezagutuko ditugu eskuartean ditugun produktuak. Sukaldaritza, izen eta abizenaz.

### **Aldez aurretik izena eman behar da**

Urriaren 14tik aitzina 010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).



## JAIOTZEN LANTEGIA, MATERIAL BIRZIKLATUEZ

Iruñeko Jaiotzazaleen Elkarte

**Abenduak 10 eta 17, astearteak. 18:00 – 20:00.**

**IRAUPENA** 4 ordu

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Lantegi honetan egunerokoan ditugun materialak baliatuko ditugu jaiotza bat egiteko. Belakiak, bilgarri-zatiak, paperak, tapoiak, kutxak, oihalak, artileak, artelazkiak, hariak, ontziak, ezkurak, harriak, makilak, mugikorra kargatzekoa,... Horiek guztiak mendi bihurtu daitezke, edo etxe, saski, zuhaitz, putzu, artzain, Errege Mago eta Familia Santu. Irudimen eta sormen apur bat besterik ez da behar.

Lantegi hau **Iruñeko Jaiotzazaleen elkarteak** emanen du.

### **Aldez aurretik izena eman behar da**

Azaroaren 4tik aurrera 010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).



## DASTATZE-SOLASALDIA: NAFARROAKO BABARRUNEN TOKI-BARIETATEAK

Red de Semillas de Navarra-Nafarroako Hazien Sarea

Abenduak 11, asteazkena. 18:30 – 20:30.

**TOKIA** Geltoki (autobus-geltoki zaharra).

Babarrunen tokiko barietateak desagertzen ari dira hein handi batean, nahiz eta ezaugarri gastronomiko bikainak eduki ez ezik benetan onuragarriak diren nekazaritza jasangarrirako ere. Horiek ezagutaraztea da gero eta ziurragoa den desagerpenetik libratzeko lehen urratsa. Dastatze honetan ikusiko dugu zein garrantzitsuak diren nekazaritza eta elikadura jasangarrirako, horietako batzuk dastatu eta ezagutzen ditugun bitartean.

### Aldez aurretik izena eman behar da

Azaroaren 4tik aitzina 010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).



## BIZITXOKO: EZAGUTZAK ETA UNE ATSEGINAK PARTEKATZEKO GUNEA

Juanjo Iriarte, konponketetan aditua

Ostegun bat hilean

Urriaren 10a, azaroaren 14a eta

abenduaren 12an 18:00etatik 20:00etara.

GAZTELANIAZ

EUSKARAZ

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Gune honek xede du bizikleten konponketari buruzko ezagutzak partekatzea eta ongi pasatzea gure bizikleta doitzen dugun bitartean edo besteei laguntzen diegun bitartean. Horretarako, **Juanjo Iriarte** izango da bertan, konponketetan aditua, eta Bizitxokora doazen lagunei laguntza eta aholkuak emango dizkie.

Sarrera librea. Ez da izena eman beharrik



## GUTUN-EKO SISTEMAK

"Iruña: hiria ekosistema gisara"  
egonaldi artistikoan  
hautatutako proiektua



**Maidier Garayo, Paula Torán eta Nahia Villanueva**

**Urriak 8 - Azaroak 22**

**Aurkezpena: urriak 8, asteartea. 18:30.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Herritarrei Gutun-EKO sistemak proiektu artistikoan parte hartzeko deia egin eta gauza berdingabeak bildu dira, gure hiriari erreferentzia egiten diotenak, ekosistema gisara. Gauza horiek elkarriketean aritu dira **Maidier Garayok, Paula Toránek** eta **Nahia Villanuevak** bi hilabetetan zehar ondu duten testuinguruarekin, Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak Uharteko Arte Garaikidearen Museoarekin elkarlanean bultzatutako egonaldi artistikoaren barruan.

Nola bizi gara, nola sentitzen dugu eta nolako harremanak ditugu gure ingurunearekin? Proiektuaren helburua da jardun artistikoaren alderdi ikertzailea testuinguru jakin batean arakatzea, Iruñeko ekosistema kasu, eta horrela, harreman berriak eraikitzea sormen-prozesu ezberdinen artean. Analogia bisual, testual eta objektualen bidez egin dute; horixe dira, hain zuzen, jasotako eta erakusketa honetan ikusgai paratu diren olerki, testu, gauza eta tramankuluak.

## HABIAK ETA TXORIAK

Ana Villamuza eta Daniel Lascuráin

**Azaroak 26 - Abenduak 27**

**Aurkezpena: azaroak 26, asteartea. 18:30.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Erakusketa honek marrazkiak eta forma uztartzen ditu. **Ana Villamuzak** txorien marrazkiak aurkezten ditu, berak eginak eta haiek pizten dioten lilura eta jakin-minaren emaitza. Duten misterioa eta edertasuna zaila da azaltzen giza arrazionaltasunetik... Marrazkien eta emozioaren arteko bidea, baina, laburragoa da. Hegaztiak behatzean sentitzen duen plazer estetikoaz gainerako bizidunen askatasunarekin kontsenkuente diren jarrera etikoetara iristen da.

**Daniel Laskurainek** birziklatutako materialez eraikitako habien sorta aurkezten du. Egunen batean bizileku izan zitezkeen hegaztiendako arkitektura ñimiño horiek hutsik daude orain, eta naturaren egoeraren metafora ankerra dira. Ingurumena zaintzeko lanetan aritzen direnendako omenaldi txikia ere badira.



## DIRURIK GABEKO MERKATUA



**Hilabete bakoitzeko azken astean egiten da (jaiegunak daudenean kenduta)**

**Urria: 22-25**

**Azaroa: 19-22**

**Abendua: 17-20**

Merkatu honek, trukea eta berrerabilera bultzatuz, ohiko salmenta-erosketa sistemari alternatiba bat eskaintzein digu. Eredu honekin kontsumorako objektu berrien ekoizpen eskaera murriztu nahi da, lehengaiak eta energia aurreztuz eta, beraz, ingurumena zainduz.

Denetarik aurki daiteke: arropa, bitxiak, zapatak, liburuak, jostailuak, etab. Erabiltzen ez ditugun gauzak ekar daitezke, eta beste norbaitentzako interesgarriak izan badaitezke. Merkatuan, bertan dauden beste gauzengatik trukatzeko ahal ditugu. Pertsona bakoitzak guztira lau gauza alda ditzake aldira.

## JOSTAILUAK TRUKATZEKO GUNEA



**Hilabeteko ostegun batean egiten da**


**Urriak 31**

**Azaroak 28**

**Abenduak 26 eta urtarrilak 2**

Jostailu trukea sustatzea da ekimen honen xedea. Honekin, txikiei kontsumoaren alternatiba bat aurkezten diegu, eta jostailuen bizitza luzatzea bultzatzen dugu. Haurrek, jadanik erabiltzen ez dituzten jostailuak, ipuinak, puzzleak, etabar ekar ditzakete, baldin eta erabiltzeko moduan badaude. Gunean beste erabiltzaileek ekarritako gauzengatik alda ditzakete. Trukea erokatua eta egokia izan dadin, Ingurumen Heziketarako taldeko kideek ikuskatua izanen da.

## HAZIAK TRUKATZEKO GUNEA



Hazien trukea bultzatzea da ekimen honen helburua. Honekin, bertako hazien aniztasuna mantentzea bilatzen dugu, agroekologiaren bidea sustatuz. Parte-hartzaileek ekartzen dituzten haziak, gunean dauden haziengatik alda ditzakete. Haziak erabiltzaileek ekoiztutakoak behar dute izan, ongarriri edo herbizida sintetikorik gabe. Bildutako haziak, ontzi egokietan gordetzen dira eta hazi mota bakoitza erregistro orri batekin identifikatzen da.

**Museoan aurki daiteke modu iraunkorrean.**

# MUSEOA ZEUREGANATU

Museoak bozgorailu gisa jokatu nahi du eta elkarrekin, ikastetxeetan, etabar egiten diren ingurumen eta gizarte-proiektuak zabaldu. Horretarako, bertako instalazioak eta hedapen-bideak erabiltzeko aukera ematen du unean uneko ekimen, lan, erakusketa eta abarrendako. Hitzaldi aretoa, bilera gelak eta erakusketa espazioa zuen esku daukagu.

[museoeducacionambiental@pamplona.es](mailto:museoeducacionambiental@pamplona.es)

